

ANAITASUNA

B I Z K A I A

166 gn. zenb. — 1968, agostuak 15 — 4 pta.

Biafra eta Katolikuok

Orain asko ez dala, entzute aundiko itzaldi bat egin eban Londreseko Heenan Kardinalak, ango eleiza katedralean.

Otoitz giro* bero baten, lagun asko batu zan berari entzuteko: katolikuak eta protestanteak.

Gaur esaten dan lez, Kardinalaren berbaldia guztiz «degia» izan zan.

Heenan Kardinala, eleizgizon ospetsua da, karguz eta jakituriaraz, Ingalaterrako Eleizan.

Bere izenak, Ingalaterrako beste eleizgizon ospetsu askoren izenak dakarstaz burura: Newman, Wiseman, Manning, Faber eta abar.

Arreta* aundiagaz irakurri dot bere itzaldia; eta bertatik pentsamentu bat jasotako, emen agertzeko.

Ona emen pentsamentu ori.

Gure denporako kristiñauak —diño Kardinalak— gizarteko prolemak begi argiz eta zorrotzez gura ditue igarri, epaitu eta zuzendu.

Puntu onetan aurrerapen aundia egin dogula, ezin ukatu.

Baiña emen be, arrisku aundi bat dago —diño Kardinalak—: prolema batzuk aintzat artu, eta beste batzuk baztertu.

Izan be, Vietnameko gerreari buruz berba asko egin dabe katolikuak, beti asmo onagaz eta bakearen alde.

Zegaitik ori?

Lagun asko an ilten direalako. Ango zibilizazioa, bonbakaz zatituta, goitik behera datorrelako. Geroari begira, gerra luze onen azkenik ikusten ez dalako.

Vietnameko gerrearen kontzientzia beintzat, ba daukogu katolikuok.

Baiña katoliku batek, beti jokatu bear dau katoliku lez; ez bakarrik Vietnameko jazoeren aurrean, baita mundu guztian gertatzen danaren aurrean bere.



Millaka dira Biafran olako umeak, urrengo illabeteetan proteina falteagaitik ilgo direanak!

Vietnameko gauzakaitik arduratzea, ondo dago. Baiña Biafrakoakaitik zegaitik ez?

Vietnameko gerrea bildurgarria bada, bildurgarriagoa da oraindiño Biafrakoa.

Urte betean bakarrik geiago il ei dira Biafran, iru urtean Vietnemen baiño.

Biafrako gudua, urrunago ete dago? Ez dot uste. Edo Biafrako gizonak gitxiago balio ete dabe Vietnemen ilten direanak baiño?

J. M. LASA

(Zeruko Argia aldizkaritik bizkaieraztua)

● **FRANTZIAKO GERTAERAK DIREALA TA**
6 gn. orriald.

● **BARRI BILDURGARRIAK BIAFRATIK**
7 gn. orriald.

● **GAURKO JAPON**
10 gn. orriald.